

## **FINANTZA BALIABIDEAK**

### -Finantza baliabideak:

- Bazkideen ekarpenak: bakoitzak 6.100€ guztira 30.500€ izanik
- Mailegua: 5000€

Hasteko, guztira 30.500€ jarriko ditugu, bakoitzak 6.100€ jarri. (Urte honetan zehar lan egingo dugunaren eta gure aurrezkiaren parte bat hartuko dugu). Arazoren bat izanez gero, eta dirua behar izatekotan, bankuari gehienez 5.000€-ko mailegu bat eskatzeko aukera daukagu.

### -Baliabide fisikoak:

- Ordenagailuak
- Telefonoak
- Mahaiak
- Papera
- Posterrak
- Ekitaldiak antolatzeko materiala

Baliabide fisikoen barruan, ordenagailuak behar izango ditugu programazio atalerako, mugikorrek ere behar izango ditugu, horiek gure telefono pertsonalak izango dira, baina mugikorretik deiak egin ahal izateko "Lowi" konpainia kontratatuko dugu, hilabetero 50€ suposatuko diguna. Beste aldetik, Elektrizitateko "Endesa" konpainia kontratatuko dugu, batz bestea 100€ hilabetero inguru gastatuko ditugu. Gure bulegoa momentuz kide baten lonjan izango da beraz, ez dugu alokairuan dirurik inbertitu beharko. Beste aldetik, instalazioetan, altzairu berriak erosi ditugu gure lana produktiboagoa izateko.

### -Giza baliabideak:

- Programatzailea
- Publizitate arduraduna
- Bezeroekiko harremana eramango duena
- Enpresa burua eta zuzendaria
- Kontabilitatearen arduraduna

Giza baliabideen barruan, momentuz gu bostak bakarrik egongo gara eta bakoitzak rol garrantzitsu bat izango du:

Maitane, programazioaz arduratuko da.

Irati, bezeroak lortzeko publizitate espezifikoa egiteaz arduratuko da.

Haizea, bezero eta informazio berria eskuratzeaz arduratuko da.

Arai, zuzendaritza eta enpresaren kudeaketaz arduratuko da.

Aitana, taldearen kontabilitateaz arduratuko da.

Amaitzeko, bostak saiatuko gara bezeroak lortzen ahoz ahozko komunikazioaren bidez.

### -Baliabide intelektualak:

- Internet
- Gure ezagutzak

Baliabide intelektualetan, gure ezagutzaz eta internetez baliatuko gara.